

A surreal, painterly scene set in a vast field of colorful flowers, primarily pink and purple. In the center, a woman with long dark hair stands wearing a green patterned blouse and a long, colorful skirt. To her right, a woman with dark hair in a bun and sunglasses wears a blue patterned jacket and a patterned skirt, holding a white rabbit. Next to her, a man in a black beret and a vibrant, multi-colored patterned jacket also holds a white rabbit. In the background, other figures are visible, including a man in a floral shirt and a woman in a red top and patterned skirt. The overall atmosphere is dreamlike and artistic.

# Badon

Opera posdramatikoa



# Badon

Badon opera posdramatikoa euskal kultura eta haren kanonak berrikustera dator. Jolasaren bitartez, etorkizun utopiko espekulatibo bat proposatzen du. Eszena sorkuntza honek esperientzia estetiko eta zentzumen bidezko bat dakarkio publikoari, denok partekatzen dugun iruditeriatik sortutako mundu posible bat.

Bestelako euskal kanona, plaza publikoa eta genealogia ahalbidetuko duen agertokia asmatu nahi izan dugu. Zergatik fikziozko ariketa hau? Bestelako kanona, plaza publikoa eta aitortza praktikan jartzea ahalbidetuko digun mundua asmateko beharra sentitzen dugulako.

Errelato alternatibo eta gaurkotu bat sortzeko, diseinu espekulatiboarekin lan egin dugu, beste mundu eta etorkizunak sortzeko: aukera ezberdinak planteatuko ditugu distopia katastrofikoetatik utopia amestuetara joateko.



# Badon

Proposamenaren muinean hibridazioa dago, nahasketa, jakeoa. Dela erreferentzien aldetik, dela praktika artistikoen aldetik. Sorkuntza prozesuan lanean jardun dute antzezle, dantzari, musikari, bideo sortzaile eta diseinatzaile grafikoek, besteen artean.

Badon, gure buruak berpentsatzeko-berreraikitze ariketa da, baina batez ere, eta denaren gainera, gure buruak ospatzeko FESTA BAT.

Badon-ek, Korrika kulturalaren sorkuntza beka jaso du eta Korrika Kulturalaren baitan eskainiko ditu lehen emanaldiak. Ondoren Mauriziak ez dau inor hil kooperatibak hartuko du banaketaren ardura.












# Badon



## Totema

Zeruek gortinak ireki ditzala

Arantzazuko aldarean ikus daiteke

Indio apatxe bat espraiatua

Gomaespumaz egindako zilindro luze bat

Mahai gainean

Eta bertara igo

Amerikana jantzi eta

Bularra agerian egintzazu dantza

Eta lore sorta bat bidali Oteizari eta beste bat amamari

Hilda nagoenean ere bertan egongo naiz

Simaurtegi bat nire itzalarekin laztanduz.

(Ikuskizuneko testu lagin bat)

# Badon

## LANTALDEA

Antzezleak: **Ainara Gurrutxaga, Oihana Vesga, Xanti Agirrezabala,**

**Ines Osinaga, Marina Suarez**

Zuzeneko musika: **Ines Osinaga**

Testuak: **Talde sortzailea**

Zuzendaritza: **Marina Suarez Ortiz de Zarate**

Musika konposaketa: **Ines Osinaga**

Bideo sorkuntza zuzenean: **Itziar Garaluce**

Kanpo Begirada: **Edurne Azkarate**

Argi diseinua: **Elena García**

Soinu produkzioa: **Eneritz Furyak**

Eszenografia: **Sortzaile taldea**

Jantziak: **Julene Gregorio**

Argi teknikaria biran: **Elena Garcia**

Komunikazioa: **Xerra Estudioa**

Ekoizpena: **Mauriziak ez dau inor hil eta AEK**

Banaketa: **Amaia Castañeda**

Ekoizpen teknikoak: **Ines Osinaga**

Ekoizpen teknikoko laguntzailea: **Amaia Castañeda**

Testu aholkularitza: **Uxue Alberdi**

Kopla zaindaria: **Miren Amuriza**

Narrazioak eta ahotsak: **Miren Gaztañaga**

Soinu Banda: **Maite Arroitiajauregi**

Aholkularitza eta kontrastea: **Lorea Argarate, Tripak, Dejabu**

## BABESLE ETA LAGUNTZAILEAK:



ERRETERIA  
UDALA



# Badon

## MARINA SUAREZ




Marina Suarez artista bisuala, eszena-zuzendaria, interpretea eta pedagogo. Arte Ederretan (UPV/EHU) lizentziatu zen, eta eszenako eta ikusizko kulturaren masterra egin zuen (Madril).

Bere prestakuntza akademikoa artista nazionalen eta nazioartekoen hainbat ikastarorekin osatu du. Arte eszenikoen ibilbidea Parasite Kolektiboarekin hasi du. Gaur egun, Parasite Kolektiboa Baratza aretoan sorkuntza eszenikoko laborategia ematen ari da, eta azken urteetan kudeaketa, komisariatza eta komunikazioan ere lan egin du bertan.

Bilbaoarte Fundazioan, Tabakaleran, bizi izan den artista izan da, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du bere azken lana, Bortusai, egiteko. Beste sorkuntza beka batzuk ere eskuratu ditu, hala nola Emart Showroom, VEGAP, Gazte Sortzaileak edo Dantzan Bilaka.

## INES OSINAGA



Musika pedagogian espezializatutako biologaria da Ines Osinaga Urizar. Trikitixa jotzen du eta musika elektronikoa sortu eta ekoizten daramatza 20 urte baino gehiago.

*gose* taldea lideratu zuen, sustraiko musika eta soinu elektronikoa uztartzen zituena, Euskal Herrian eta atzerrian makina bat kontzertu eskainiaz.

Erreferente musikala da euskal musika eszenan; trebatua eta genero ikuspegian finkatutako ibilbidea duen emakumea.

Transmisioan aritua eta dibulgatzaile pasioduna.

Gaur egun, sortzera emana dago, proiektu pertsonal zein kolektiboetan, kultur ondare immaterialaren transmisioa, berrikuntza, euskara eta feminismoa ardatz hartuta.

Ekintzailatza kulturalen eskarmentudun sortzailea, plazandrea, ibilbidean zehar eraikitako sarea elikatzen duena eta kultur eta sormen industrian kaudimendun enpresaria da Ines.

Teknologia-zale eta -jale amorratua, nerd hutsa, boomerra kontsideratzen ez den millennial señora ekintzailea.

Musikatik eta musikaz mundu hobe bat eraikitzea posible dela sinisten duen eragilea.



# Badon

## OIHANA VESGA



Oihanak Biarritzeko Maurice Ravel Kontserbatorioan eta Londreseko London Contemporary Dance School-ean burutu zituen goi mailako dantza ikasketak, azken honetan dantza garaikideko gradua eta ondoren koreografiako masterra eginaz.

2012an hasi zuen ibilbide profesionala dantzari gisa Londreseko Richard Alston Dance Company konpainiarekin, bira nazional eta internazionalak eginaz. Ondoren hainbat koreografo eta konpainiekin egin du lan, Simona Bertozzi (IT), Olatz de Andres (EH), Blanca Arrieta (EH), Joe Moran (UK), Didy Veldman (UK), Rick Nodine (UK), Myriam Perez (EH) eta Cia. La Intrusa (ES), besteak beste.

Lan koreografiko propioari dagokionez, bere *Motivaction* (2017) obra pieza finalista izan zen 'Certamen Coreográfico de Madrid'-en. 2018an 'Elkarrizketan / About a common place' lana sortu zuen bere aitarekin, Donostiako Tabakaleran aurkeztua izan zena. 2020an Nerea Gurrutzagarekin batera Mari Zaunka kolektiboa eraiki eta 'Leihu zikin, zeru garbi' pieza sortu zuten, hau gaurko egunera Euskal Herriko hamaika jaialdi eta antzokietan aurkeztua izan dena. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Dantzan Bilaka programaren parte 'Altzoan altzoan esaten dit / Bragas y Celine' bakarkako lana sortu zuen, Bilboko BLV jaialdian eta Donostiako LaboXL4 aurkeztua izan dena. Bartzelonako LaSúbita konpainiarekin bat 'Valkirias' piezaren sormen kolektiboaren parte da. 2023ko apirilean Mari Zaunka kolektiboarekin 'Erreka ondoan, bi gezur' lana aurkeztu du.

## AINARA GURRUTXAGA



Eszena zuzendaria eta antzezlea Dejabu konpainiaren sortzaileetako bat da. Informazio Zientzietan lizentziaduna da eta Lengoaian, semiotikan eta komunikazioan masterduna ILCLI institutuan. Antzerki fisikoan graduatu zen London International School of Performing Arts eskolan. Eszena arteetan ikasketak osatu ditu Complicité Company, Philippe Genty, Bryony Kimmings eta Marta Pazosekin.

Dejabu konpainiarekin Gizona ez da txoria, Gure bide galduak, Arrastoak eta Naon Tokin lanak sortu ditu, besteen artean. Zuzendari eta antzezle lanetan aritzeaz gain idazketan ere jardun du. Konpainiarekin idatzitako antzezlanak argitaratuta daude Artezblai, EHAZE eta Txalaparta argitaletxeetan.

# Badon

## XANTI AGIRREZABALAGA



Xanti Agirrezabala Zeberio (Azpeitia 1997) arte eszenikoetan barneratzen da Alaitz Olaizolarekin eta Zestoako interpretazio eskolan. DANTZERTI Euskadiko Arte Dramatikoko Goi Mailako eskolako lehen promozioan burutzen ditu ikasketak.

Antzerkiko lehen hastapenak egiten ditu Eromen Produksioak taldearen Sweeney eta ATEA Teatroaren Jendartean Bidaide lanetan. Euskal Antzerki Topaketetan aurkeztu du SATIRO, bere lehen bakarkako somen lana, ikuslegoaren saria irabazten duelarik. 2019tik Horman Poster kooperatibaren parte da eta hainbat ekoizpen lan burutu ditu bertan ANTIGONE edo ezetzaren beharra (Donostia Antzerki Saria 2021) eta SOUVENIR komedia estralurtarra, adibidez.

Ikus entzunezkoetan Goenkale eta Ihesaldia telesailetan aritu izan da, baita Cuerdas film laburrean ere.

Gaur egun antzerkiko irakaslea da Azpeitiko Dinamo sormen gunean.

## AMAIA CASTAÑEDA



Arkitektura ikasi eta zenbait urtez arlo honetan lanean aritu zen arren, 2018an bere ibilbide profesionala eraldatzea erabaki zuen, arlo kulturalera bideratuz. Madrilen Máster en Práctica Escénica y Cultura Visual (UCLM eta Museo Reina Sofía) burutu zuen eta aldi berean antzerkigintza ikasketak egin zituen Escuela de Interpretación Cristina Rota-n. Lehenengo masterraren amaitutakoan beste bat egin zuen, Máster en Gestión Cultural Internacional e Innovación Social (UCM) eta ordutik kultur kudeaketa lanetan dihardu hainbat proiektutan. Lehenengo lanak Irazan Antzerki Gunean burutu zituen besteak beste, eta distribuzio lanetan ere aritu zen "Tripak" kolektiboarekin eta Amaia Bono eta Damian Montesdeoca artistekin. 2021ean Debagoienerako Antzerki Plataformako proiektu berria sortu zuen Josu Zubia eta elkarteko beste kide batzuekin batera, eta plataformako koordinatzailea da hasieratik. Urte betez Ventrículo Veloz konpainian distribuzio eta produkzio lanetan aritu zen, eta 2022ko irailtik LauraEnÓrbita konpainian distribuzio eta produkzio lanak egiten ditu. 2023ko apirilean Badon\* proiektura batu zen produkzioko koordinatzaile moduan.

Kudeaketaz gain, sortzailea ere bada, 2022ko udan XUP taldeko "Beita" web sailean aktore zuzendari aritu zen eta Oñatiko Gaztetxeke "Mari, ixilik nahi gaituztenean" filmean antzeztu zuen. Horretaz gain, urte berean, Arta Kolektiboa sortu zuen Irene Balzategi eta Gen Martinezekin batera, eta "Sehaska-kanta gorriari" beraien lehen antzezlan aurkeztu zuten 2023ko martxoan.



# Badon

## ELENA GARCÍA



Santiago de Compostelan jaioa, 2007an iritsi nintzen EHra. Kursaal Kongresu Jauregian, Victoria Eugenia Antzokian, Donostiako Antzoki Zaharrean eta abarretan hasi nintzen laguntza-langile gisa (operaria de ayuda), eta Get In enpresan kontzertu handietan zamalanak egiten. 2009. urtean hasi nintzen instalazio elektriko eta automatikoen erdi mailako modulua ikasten. Amaitzean, mantentze elektriko praktikak egiten ditut Donostiako Ospitalean, ekitaldi eta ikuskizunetan egiten nuen lanarekin jarraituz. 2013an hasi nintzen soinu-teknikariaren goi-mailako mailan, eta 2015ean soinu-praktikak egin nituen DOKAn eta Onda Vascan.

Honek argiztapenaren munduarekiko interesa pizten dit, eta ikastaro ofizialak zein ez-aratuak egiten ditut, besteak beste: “Curso de iluminación de espectáculos en vivo del Instituto Universitario Ortega y Gasset” (UCM), “Máster en Iluminación de espectáculos con integración de video” (Escuela Técnica del Espectáculo, Madrid), “Recursos de iluminación para proyectos audiovisuales” (ESCIVI), “Escenografía e iluminación en la toma fotográfica” (ESCIVI), “Redes de Iluminación monografikoa (ETC EOS, Madrid), “familia EOS” ikastaro aurreratua (Madrid), “Chamsys” hastapen aurreratu ikastaroa (Valencia), eta “usuario de grandMa2” entrenamendu aurreratua (Madrid). Aldi berean, eskorga jasotzaileetako langile gisa ere trebatu nintzen, baita taldetxo teleskopikoak, lan bertikalak, eta motor elektriko trifasikoen prebentzio- eta ziurtapen-ikastaroan ere.

2016an, hainbat enpresatan argiztapen-teknikari gisa lanean hasi nintzen, hauen artean, Alex Ubagorekin programazioa eta diseinua egiten. 2019an, autonomia izateari utzi nion, eta Neurotika Sound enpresan sartu nintzen. Bertan, 3 urtez aritu nintzen Argiztapenaren zatiaren buru, 2022ko ekainean berriro autonomo bihurtzeko. 2020an, "Izaro" rekin egin nuen "Limonos en invierno" bira. 2021ean "Zetak" taldearekin, 2022ko abenduan utzi nuena bi urteko biraren ondoren. 2022ko urrian, "Olatz Salvador" artistaren bira amaitu nuen, eta, gutxi gorabehera, data berean hasi nintzen "mauriziakezdauinorhil" kolektiboaren argiztapen-teknikari izaten. Gaur egun, "Janus Lester" artistarekin eta "Badon" proiektuarekin hasi berria naiz. Horrez gain, urrutiko sare informatikoen goi mailako kudeaketa (BIRT) ikasten ari naiz eta hizkuntza eskola ofizialean (A2) euskara ikasten.

## LOREA ARGARATE



Formazioz ingeniaria eta deformazioz musikaria. “Las Tea Party Djs” taldeko kide izan den bitartean (2010-2019), Espainiako areto eta jaialdi gehienak ibili ditu. Proiektu batean baino gehiagotan parte hartu du noizean behinka jardunez, eta azken etapa (2017-2020) Mazmorra musika taldean eman du.

Orain Maurizia batzuen eskutik hartuta doa, eta hantxe aurkituko duzu padak, sinteak eta looperrak egiten.

Dibulgazioa, teknologia eta inteligentzia artifizialean aditua eta aritua.

# Badon

## JULENE GREGORIO



Modarekiko nire interesa modelaje lanari esker piztu zen, eta gero Moda Diseinuko karrera ikasi nuen INEDIn (Bilbo). Diseinu, patroigintza, jantzigintza eta estilismoaren oinarritzko printzipioak ikasi nituen Gabriel Azkoitia bezalako irakasle handiei esker. Bilbon kokatuta nengoela, gogor hasi nintzen lanean, botere-figura gisa emakumean oinarritutako bi bilduma ateraz, baina ikuspegi desberdinetatik: LA NOUVELLE FEMME eta PINK PUSSY. Nire proiektu pertsonalak garatzen ari nintzela, merkantzako estilista lanetan hasi nintzen: MAN 1924, Lovat & Green eta TOCA TOCA. Artista handiek nire jantziak eta estilismoak eraman dituzte "alfonbra gorrietara": Eneko Sagardoy, Jone Laspiur, Nerea Torrijos... Azken bi hauek Goya saria jaso zuten iazko edizioan, Jonek nire azken soinekoetako bat jantzi zuen eta Nereak Golden bildumako nire belarritakoak eraman zituen. Euskal Herriko egungo musika panoramako hainbat taldek nire estilismoak eta jantziak izan dituzte euren zuzenekoetan, bideoklipetan eta argazki saioetan. JOTA MARTINArekin, ANDER SAGASTIBERRI artista kamerarekin eta SAHATSA JAUREGI arte-zuzendaritzarekin. VULK: bere hirugarren albumean, VULK EZ DA. Promozioa egiteko, zuzeneko hiru saio egin zituzten, filmatuta eta argazkiak aterata. BELAKO: Cris Lizarraga, BELAKOko front-woman, zuzeneko emanaldietan nik diseinatutako jantziak izan ditu.

Niretzat oso garrantzitsua da talde batez inguratzea. Makilladoreen, modeloen, arte-zuzendarien eta abarren zirkulu egokiarekin. Noizean behin, bezeroekin egin ezin ditudanak islatzeko argazki-saioak antolatzeko denbora ateratzen dut. Nire inguruko laguntza izaten dut, ama, lagunak...

Gaur egun, diziplina anitzeko hainbat proiektutan ari naiz lanean. Nire amarekin batera, SABAI zeramika-markan lan egiten dut, dekorazio eta bitxien enpresa txiki batean. Golden bilduman ere kolaboratu dut KEYAH zeramika markarekin, nire marka pertsonalarekin jarraitzeaz gain. Eta duela gutxi Badon\*-en taldearekin bat egin dut.

## ENERITZ FURYAK



Soinu mahaiko itzalean batzuetan, oholtza gaineko agertokian bestetan. Formakuntzari dagokionez Euskal Ikasketetan graduatua eta Soinu Teknikaria. Eneritz Furyak izenez garatu du bere jardun artistikoa azken urteetan (Eneritz Furyak, 2017; Zaldi Zuria/Maskara, 2018; Emadan, 2021; Emaizkidan - Emadan Remixes/Reworks, 2023) egile kantagintza eta elektronika uztartu artean, esperimentaziorako eta soinuaren alderdi teknikoagoarekiko interesa elikatuz. Bira nahiz artista egonaldietan parte hartu du atzerrian ere (Frantzia, Alemania, Italia eta Georgian, besteak beste), hainbat jatorri, diziplina eta ekiteko moduren lekuko. 2018an Bihar dok 13 filmean Julen Lekuonaren 'Itsasoan urak handi dire' kantuaren bertsio batekin parte hartzeaz gain, 2022an Bi arnas dokumentalaren soinu banda sortu zuen. Egun, bere jardun artistikoaz gain, #MauriziakEzDauInorHil kolektiboaren emanaldietan soinu teknikari lanetan aritzen da, baita beste proiektu batzuen zuzeneko soinuizatzean ere. Badok Euskal Musikaren Atariko Dunbala podcasteko gidarietako bat ere bada. Musika gintzatik eta soinutik harago hainbat kultur erakunderentzat aritu da lanean, bereziki komunikazioan, Zinemaldian (SSIFF) eta Donostiako Musika Hamabostaldian, besteak beste.



# Badon

## 2023/24 BIRA KONFIRMATUA

2023/11/23 AZPEITIA. Dinamoia. Aurrestrenaldia  
2023/12/01 GASTEIZ. Printzipal antzokia. Estrenaldia  
2023/12/17 DONOSTIA. Antzoki zaharra  
2024/01/18 IRUÑEA. Gayarre Antzokia  
2024/01/21 BAIONA. Lizeoa  
2023/03/10 ASTIGARRAGA. Erribera Kulturgunea

Datak zehazteke:

BILBO  
DONAPALEU  
TUTERA / TAFALLA



# Badon



AU DE BADON ZURE HERRIKO ANTZOKIAN ZABALDU NAHI?

Plazerez eramango dugu fragantzia berria zure herrira

Jarri gurekin harremanetan:

Ines Osinaga +34 676 483 204  
Amaia Castañeda +34 634 450 355

[info@badon.eus](mailto:info@badon.eus)